

noaia

**Igande honetan,
Artisautza Azoka**

**Azaroaren 6an,
Mikel Urdangarinen
kantaldia**

**Sutegik 10 urte
beteko ditu azaroan**



Sindikatuak, ahobatez:

**“Neurriak hartzea ezinbestekoa da,
lan istripu gehiago eman ez daitezen”**



Jostailu denda
xipinbolo

Etxebeste Kalea, 15 943 37 75 96 Usurbil



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORTZETXEA

munalurra 8, USURBIL

HILERRIKO LANAK:

- GORPUZKI ETA HILOTZ-ONDARREN LEKUALDAKETA
- HILERRI ZAHARRETIK BERRIRA
EDO EDOZEIN HILERRITIK
- IZAPIDE GUZTIETAZ ARDURATZEN GARA (OSASUN SAILA, UDALA...)
OSASUN SAILAK BAIMENDUTAKO ENPRESA
(ERREGISTRO ZB: F18)

- GORPUZKI ETA HILOTZ-ONDARREN ERRAUSKETA
- GORPUZKI ETA HILOTZ-ONDARREN BATERAKETA, LAPIDAK

943 36 21 63 (24H)

AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE



- BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK
- EDOZEIN ASEGURU IZANDA (**OCASO, SANTALUCIA...**) HERIOTZAZ GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H. DENETAZ ARDURATZEN GARA
- Asegururik EZ duten familientzat **Usurbilgo beilatokia DOAN** (gure eskutik)

Lehenengo 6
erosleentzako,
garaje bikoitza
banakako
prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 € tik



12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi_n

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1^o Behea
20009 Donostia

E.:contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



Albiste iruditan

Zumetak egin du 50. Durangoko Azokaren kartela

lusio handia egin zion eskaria jaso zuenean, "Durangoko Azoka oso garrantzitsua baita euskal kulturarentzat, eta baita arte plastikoentzat ere. Ez nuen espero horrelako eskari bat jasotzea, eta motibazio handiarekin egin dut", dio Jose Luis Zumetak. Berak landutakoa da, abenduaren 4tik 8ra ospatuko den Durangoko Azokaren 50. edizioko kartela. "Azokak gero eta indar gehiago dauka, gero eta hobeto antolatzen da, gero eta oihartzun zabalagoa du... Berezia izan da niretzat lan hau egitea", adierazi die Zumetak azokako antolatzaileei.

Kartela bizi duen momentuari lotua dagoe la dio artista usurbildarrak: "Lan irekia da, eta bakoitzak bere erantzuna eman beharko dio... Uste dut lanek ez dutela erredundantzia gehiegirik behar, bakoitzak eman behar diola erantzuna...", Zumetaren esanetan.



Zumeta bere tailerrean, kartela eskuetan duela. Durangoko Azokaren berri gehiago: durangokoazoka.com

Laburrean

1952an jaiotako kinto bazkaria

Azaroaren 29an bilduko dira Patri jatetxean, arratsaldeko 14:00etan. Dastatuko duten otorduaren prezioa, 36 eurokoa izango da. Izen emateko epea zabalik egongo da, azaroaren 19ra arte. Apuntatzeko deitu 943 361 380 telefono zenbakira.

1972an jaiotako kinto bazkaria

Azaroaren 21ean batuko dira, Aratz jatetxean. Izen emateko 40 euroko ordainketa egin behar da kontu zenbaki honetan, azaroaren 13a baino lehen: 0182 6043 21 0201514132 (BBVA). Ordainketa egiterakoan ez ahaztu izen abizenak adierazteaz.

Patxi Uranga zoriontzeko argazkia ateratzeko deia

Euskal preso eta senideen eskubideen aldeko hileroko elkarretaratzea ostiral honetan, 20:00etan Mikel Laboa plazan. Elkarretaratze amaieran, Patxi Uranga presoaren urtebetetze egunari begira, bere zorion agurrerako argazkia aterako da.

noaia

Kultur Elkarte

Bordaberi, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 // elkartea@noaia.eus // www.noaia.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Beatriz Alda,

publizitatea@noaia.eus

Diseinu berria:

Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzio@noaia.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa:

Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

María Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



Idoia Torregerai

Kalabaza egunak

Larunbat honetan beharbada gazte-txoren bat edo beste ikusiko dugu herrian mozorrotuta, Halloween ospatzen, eta batek baino gehiago muturra okertuko du atzerritar festa honek gure artean hartu duen indarragatik. Baina Halloween Euskal Herrian ere ospatzen zela esaten badizuet sinestuko al didazue? Ni ere harritu nintzen pasa den urtean AHOTSAK -ek (Euskal Herriko hizkerak eta istorioak biltzen dituen

proiektu ederrak) ohitura honi buruz hitz egiten zuten hainbat pertsonen bideoa argitaratu zuenean.

Izan ere, duela 60 urte ohiokoa zen santu guztien bezperan edo azaroaren leian eta 2an kalabazak edo arbiak lapurtu, hustu eta kandelak sartuta "Halloween" ospatzea jendea beldurtuz. Izarak eta trapuekin ere mozorrotzen ziren gaztetxoak, eta zenbait herritan eske errondak ere egiten ziren gaztainak, intxaurrak eta horrelakoak eskatuz. Arimen Gaua deitzen zitzaion, edo Gau beltza. Ez zenekien?

Oier Araolaza antropologo elgoibartarrak adierazi zuen moduan, gure kulturaren tragedia bat da hori; gure kultura, historia eta tradizioak ez ezagutzea eta kanpotik datozenak kopiatzea. Kalabazak ematen dizkiogu gure usadioei.

XX. mendearen bigarren zatian festa honek indarra galdu zuen Euskal Herrian hainbat arrazoiengatik: gizartea aldatzen ari zelako, orduko gazteek interesa ez zutelako edota nekazal munduari lotutako festa zelako, beharbada. Ameriketako Estatu Batuetan,

berriz, irlandar etorkinek ospatzen jarraitu zuten eta indar handia hartu zuen. Zineak mundu osora zabaldu du Halloween eta gaur egun merkataritza industriak negozio handia dauka hortxe.

Beraz, aste honetan telebistan eta larunbatean herrian Halloween-eko kalabazak ikusten ditugunean, gurean ere garai honetan protagonistak izan zirela gogoratu. Batek daki, beharbada piztu dezakegu berririo ohitura hau.

Eta hala bazan eta ez bazan, sartu dadila kalabazan...

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue | Joxe Piñas | Ilazki Gaintza | **Idoia Torregerai** | Luis Aranalde

Eraso sexisten salaketa, berriz plazara

Emakumeen aurkako indarkeriak ez du etenik. Ezagutzera eman diren azken kasuen artean, Nafarroa Oinezen neska batek jasandako erasoak dugu. Erasorik erantzunik gabe eta erasoturik babesik gabe ez zutela utziko adierazi zuten urriaren 7ko mobilizazio bidez Matrakak Usurbilgo Talde Feministak. Gauza bera egin zuten, Usurbilgo Erenai gazte erakundearekin bate-



ra aurreko ostiralean Mikel Laboa plazan deituriko elkarretaratzean

ere. Nafarroako ikastolen aldeko festan izandako erasoaren salake-

ta plazara atera zuten. Mobilizazio jendetsua izan zen.



Azken lan istripuaren inguruko mozioa onartu du Udalak

Usurbilgo Udalak ezohiko eta premiazko osoko bilkura deitu zuen Atalluko lan istripua gertatu eta biharamunerako. Plenoa bera hain zuzen, bilkuraren premiazotasuna berresteko bozketarekin abiatu zen. Aho batez berretsi zuen udalbatzak. Eta emaitza bera errepikatu zen segidan, azken lan istripu honen harira Usurbilgo EHBildu Udal Taldeak aurkezturiko 4 puntuko mozioaren bozketan ere. Aho bateko babes eman zioten gobernu taldeko kideek, PSE-EE eta EAJ-PNV udal taldeek.



Hildakoaren senitartekoei eta lagunei elkartasuna adierazi die udalbatzak.

Udal adierazpena

Atzo arratsaldean (urriaren 19an) Usurbilen gertatutako lan istripu baten ondorioz langile bat hil zen. Askok dira dagoeneko lan istripuetan aurten hil diren langileak, eta arazo hori aspalditik dator.

Gure gizarte aurreratuan, hainbeste aurrerapen teknologiko ditugula, onartezina da hori horrela izatea. Arazo sozial latz baten aurrean

AHOBATEZ ONARTUA

“Lan osasunari lehenetasuna emango dion eredia bultzatu behar da, eta eredu horrek lan duina eta segurua izan behar du ardatz”

gaude, eta arazo hori estrukturala da. Zerbait larria gertatzen ari da

ez bagara gai langileen lan segurtasuna bermatzeko. Arazoaren sustraietara jo behar dugu behar bezalako konponbideak aurkitzeko. Eta jatorrizko arazo horien artean daude ez-egonkortasuna, lanaldi luzeegiak eta zabor kontratuak. Arazoaren muinean dago azken urteetan inposatu den lanaren antolakuntza berria.

Horiek horrela, Usurbilgo Udalak honako hau jakinarazi nahi du:

1. Lehenik eta behin, Usurbilgo Udalak bere samina adierazi nahi du, eta elkartasuna helarazi nahi die hildakoaren senitartekoei eta lagunei.

2. Usurbilgo Udalak argi adierazi nahi du lan osasunari lehenetasuna emango dion lan harreman eta prebentzio eredia bultzatu behar dela, eta eredu horrek lan duina eta segurua izan behar duela ardatz. Horretarako, ezinbestekoa da gizarte eta ekonomia arloko eragile guztiek eta administrazio publikoek batera eta norabide berean jardutea.

3. Egiturazko arazo honi aurre egiteko, funtsezkoak dira, batetik, prebentzioa eta prestakuntza eta, bestetik, lan segurtasunaren eta osasunaren kontrako delituen jazarpena. Norabide horretan lan egin behar dute, hain zuzen ere, gizarte eta ekonomia arloko eragileek eta erakunde publikoek.

4. Usurbilgo Udalak bat egiten du istripu hau salatzen egingo diren mobilizazioekin.

Prekarietateak hiltzen segitzen duela salatu dute

Urriaren 19an Atallu industriagunean lan istripuz hildako langilearekin 41 dira jada, 2015. urte honetan behar ari zirela zendu diren euskal herritarrek. Halakorik errepika ez dadin eta azken heriotza hau salatzen “Lan istripu gehiagorik ez! Prekarietatea hiltzailea” aldarriean, elkarretaratzea egin zen urriaren 21ean, Atallura sartzeko errotondaren bueltan. ELA, LAB, ESK, STEILAS, EHNE eta HIRU sindikatuek, euskal gehiengo sindikalak alegia, bat egin zuen mobilizazioarekin. “Lan istripu gehiago eman ez daitezten neurriak hartzea ezinbestekoa da eta hori aldarrikatu dugu gaurkoan ere”, LAB sindikatutik berri eman dutenez.

ELA sindikatutik, “Osalan eta Lan-ikuskaritzari beraien ardu-



Atallura sartzeko errotondan elkarretaratzea egin zuten urriaren 21ean.

rak bete eta lan-istripu honen arazoak eta, ondorioz, leudeken balizko ardurak argitzeko ikerketa sakona egiteko eskatzen diegu. Era berean, Gasteizko Gobernua ez behar kopuruaren handitzea geldiarazteko berehalako neurri eraginkorrak hartzeko eskatzen diegu, honen jatorrian kokatzen

diren lan-prekarietateari lotutako faktoreei mugak jarriz (kontrolrik gabeko azpikontratazioa, behin-behinekotasuneko kontratazioa, lanegun bukaezinak, lan-eritmo jasangaitzak, ...), eta Lan-osasun eta segurtasunari dagokionean enpresen gaineko kontrola areagotuz”.

Mobilizazioak, azaroaren 14ko asteburuan

2007ko urrian Seguran izandako polizia operazioaren harira, Ezker Abertzaleko 35 kide epaizten hasiko dira azaroaren 16an Espainiako Auzitegi Nazionalen; tartean, Marisa Alejandro usurbildarra. Aurreko astebururako, hau da, azaroaren 14 eta 15erako mobilizazioak iragarri dituzte herrietan, epaiketa salatu eta auziperatuei elkartasuna adierazteko.



Marisa Alejandro auziperatuari elkartasuna adieraziko zaio.

#Kilometroak15 balorazioa

■ Zer balorazio egin dezakezu amaitu berri den KMK15 urteaz?

■ Nola bizi izan zenuen urriaren 4a?

■ Zer dugu ospatzeko azaroaren 7ko eskertza jaialdian?

Mariaje Imaz, Udarregi: “Pozez egin den lana izan da”

■ Urtea oso emankorra eta aberatsa izan da. Pozez egin den lan bat izan da. Lanketa trinkoa, sakona, ordu askokoa, jende askorekin partekatua. Ikastolak herriari eta Usurbilgo herri osoak Kilometroak-i eta ikastolari eginiko ekarpena oso garrantzitsua izan da. Hasiera batean zailago ziru-ru-diena, pixkanaka eta denon inplikazioarekin eta denon lanketarekin lortzen joan gara. Egiteko moduak ere ezberdinak izan dira. Sortu ziren hiru ildo nagusi horien inguruan egin den lanketa guztia ere oso aberatsa izan da. Horrek eragile mota ezberdinekin lanketa handia egitea ekarri du eta herria eta ikastolaren arteko lotura indartzen joatea. Lanketa guztiak herrian bere arrastoa utzi du, sendotasun bat eman dio herriari. Hasitako bidea ederra da, ia herrian elkarlanerako indar hori mantentzea lortzen dugun. Baditugu proposamen batzuk, zabal-



“Hurbildu nahi duten guztientzat, egun polita izango da azaroaren 7koa”.

tzten joango gara.

■ Eguna oso pozgarria izan zen, asebeste gintuen. Etorri zen jendeak oso gustura pasa zuen, jendea gozatsen ikusi genuen. Jende asko hurbildu da esker-erak ematera. Oso gustura sentitu eta asebetetuta joan zirela esatera. Guretzako hori sari onena da. Datu zehatzak falta zaizkigu, horien berri emango da, baina dugun inpresioa ona da.

■ Eginiko lanketa oso sakona izan da. Jendea oso emana ikusi dugu. Hori eskertu eta ospatzekoa da. Kilometroak egunez ez genuen izan aukerarik, festa modu lasaiagoan bizitzeko. Jaia beste modu batean biziko dugu azaroaren 7an.

Kilometroak-en aritu garen guztiok, eta hurbildu nahi duten guztientzat, egun polita izango da azaroaren 7koa.

Begoña Izeta: “Urtea oso aberatsa izan da”

Begoña Izeta Inklusibitatea, Guztiok Gattunk Batzordea

■ Urtea oso aberatsa izan da, hainbat sentsibilizazio ekimenetarako baliaitu dugu. Jendeak ederki erantzun du. Dekalogoak izandako harrerarekin oso pozik gaude. Manifestu edo kontzeptualizazioan lan asko egin genuen. “Jendartean bidaide” antzezlanaren ere hor dago, ikastetxeetan eskaintzeko deitu digute. Zeharlerro izatea zen helburua, ez departamendu bat. Zeharlerro hauen eraginkortasuna eraldatzean neurtu behar da. Eta eraginkorrek izango gara, egunen batean zeharlerrorik behar ez bada.

Une honetan ordea sentsibilizazioa bada beharrezkoa. Hazia bota dugu. Orain ia hazia lur onean erori den. Pentsatzen dugu baietz. Egiteko lan asko dago.

■ Urduritasunez nor etorriko zen, ze egoeratan, egin ahal izango ote zuen zirkuitua, ardura horrekin. Arduradun guztiak ikastolako kontrol aretoan ginen. Laguntzaileak genituen Aranerrekian eta San Inazio aldapan, behar zuenari alternatiba bat ematen. Tailerrak izan genituen gune ezberdinetan, komun unibertsala, saskibalo partida... Ingurumen batzordearekin elkarlanean, mugikortasun murriztua duten pertsonen komunak guztiontzako

jarri genituen. Komun unibertsalean datu piloa hartu zituzten, ia jendeak zer eskatzen zuen unibertsala izan zedin. Erronka ikaragarri gustatu zitzaidan. Ispilu bat izan da hurrengo Kilometroetarako. Badakigu dena ez dela posible; oholtzak eta txosnak ez zeuden irisgarri. Landu behar den gauza bat gehiago.

■ Herriaren lanerako inplikazioa eta sentsibilizazioa. Halere, eginiko lanketa ez da bukatu. Jai bat oso momentu ona da mezua helarazteko eta gero egunerokotasunean pentsa dezagun guztiontzako, ekimenak, jaiak, herri guztiarentzako egin ditzagula.

Garazi Lizaso, Parekidetasuna

■ Gauza asko eman dizkigu. Hasteko, zer hausnartua. Argi geratu zaigu beharrezkoa dela egungo jai eredu ez-baian jartzea eta ikuspegi feminista batetik lanketa bat egitea festen inguruan. Ilusioa ere ekarri digu KMK15aren antolaketan urteak, izan ere, kontuan hartu den ardatzetako bat izan da parekidetasuna eta hori izugarria da; nahiz eta beste batzordeak baino talde dezente murriztagoa izan den.

■ Urduri eta harrotasunez. Zertorkiena zer zen ez genekielako, baina unean uneko egoeri modu egokian erantzun zitzaielako. Parekidetasunari dagokionez, urriaren 4an KMK15 ekimenaren baitan, ez zuen inork guneetako sorospun-punturen batera jo eraso sexista bat izan zuela eta laguntza eske. Beraz, berri positiboa dela esan dezakegu. Hala ere, argi daukagu horrek ez duela bermatzen egunean bertan eraso sexistarik egon ez zenik. Gau hartan bertan, herriko taberna batean, eraso sexista bat behintzat egon baitzen eta zenbait herritarrek erditik sartu behar izan zuten.

■ Herri oso bat goitik behera eta ezkerretik eskuinera mugitu izana dugu ospatzeko. Elkarlanean eta auzolanean gorabehera eta erronkei aurre egin diegun modua. Hala ere, eskertza eta ospakizunik paregabeena, etorkizunean, bakoitzak bere txokotik herria eraikitzen jarraitzea litzateke; KMK15 amaiera ez izatea eta ekimen honetan bezala, (h) aritzea, herrigintzan.

Alaitz Aizpurua, Udala: "Usurbilgo herritarrok dugun potentzialtasunaren erakustaldia izan zen"

■ Hainbeste lan esparru sortu eta hainbeste herritarrengana iristen den dinamika bat Usurbilen nola joan den hazten eta osatzen ikustea aberasgarria izan da. Hori guztia gainera, balore konkretu batzuen gainean joan da garatzen; inklusibitatea, jasangarritasuna, parekidetasuna. Usurbilgo Udaletik gure egiten ditugun baloreak dira. Oso polita izan da ikustea, balore horien gainean herria nola antolatzen joan den, herritarrek, ohi baino gehiagok, nola heldu dioten erronkari, harreman eta konplizitate horiek nola joan diren sortzen, indartzen eta nola azaleratu genuen urriko lehen asteburuan, herri honen potentzialtasuna.

■ Eguna baino asteburua izan zen neurretzat. Jada ikusten zen ostira-lean, muntaketa lanetan, ze poz,



emozio eta sentsazio transmititzen zuten herriak. Oilo ipurdia jartzen zuten prozesua izan zen. Balore zehatz horiekin bat egin eta herritar guztiak horren parte garelako ikusi izan zen. Usurbilgo herritarrok dugun potentzialtasunaren erakustaldia izan zen.

■ Azaroaren 7an, herritarrek egin-dako lan horretaz guztiaz harro egotera gonbidatu nahi nituzke. Lanke-ta guztiotan egoten diren tentsio, gorabehera eta desadostasunak, hori lanketaren ibilbidearen parte da. Baina baita ere ikusi behar da, zer egin dugun urte osoan, zer eta nola lortu dugun. Harro egotekoa da. Usurbil aipatzen diren balore horietan eraikitzen ari garela erakutsi dugu. Berriz ere erreferente gara, beste askorentzat. Horretaz guztiaz gozatu eta harro sentitu behar dugu. Momentua da gainera, KMK15 urteari bukaera polit bat emateko. Herritar guztiak eskertzeko egindako lan guztiengatik. Baina batez ere herritar guztiak harro senti gaitzen egin dugunaz. Eta argi ikusi dezagun, proposatzen dugun guztia egin genezakeela, helburuak eta balore zehatz batzuk garbi izanez gero.

Mikel Usabiaga: "Jarrera eraikitzaile batetik, antolaketa-lana auzolanean egitea aberasgarria da"

Mikel Usabiaga, Ingurumen/Garbitasun Taldeko kidea

■ Jarrera eraikitzaile batetik, antolaketa-lana auzolanean egitea bizipen aberasgarria da eta hori herri bizitzarako onuragarria izan da. Irakaspen ederra ondorengoentzat. Gure batzordearen egitekoa, sarritan, ohartaraztea izaten da eta hori ez da zeregin atsegina. Jai erraldoi honek jasangarritasunarekin talka egiten du arlo askotan. Kontraesan ugari sortzen ditu eta hausnarketa sakon bat landuz aldaketak egitearen beharra gero eta nabarmenagoa dela uste dugu. Be-

har genituen laguntzaileak osatu ezinik ibili gara. Beste herrietako laguntzailez osatu behar izan ditugu taldeak. "Hondakinik onena sortzen ez dena" leloari jarraituz aurrez jarritako erronkei emaitza onekin erantzutea lortu dugu. Zirkuituan zehar eta 6 guneetan, iturriko ura doan eta eskuragarri jartzea arrakastatsua eta praktika on bezala baloratua izan da. Hondakinen gaikako bilketa berriz, emaitzak hain onak lortzea izugarria izan da. Errefusa kopuru txikia pilatu zen. Ikastolen Elkarteak beste herrialdeetan antolatzen dituen jaialdietan, irizpide hauek kontutan hartzea garrantzitsua litzateke.

■ Goizean ilunpetan hasi eta gauean ilunpetan bukatuz eta gure lana ondo egiteko hainbeste atal zaindu beharrak, erabat aztoratuta egotera behartu gintuen, festaren gain-ikuspegia galduz. Nola nahi ere, iruditzen zaigu ez dela festa-eredu hezigarria gertatzen. Masifikazio honek ondorio negatibo batzuk eragiten ditu gure ustez.

■ Herri txikia izan arren erronka hau ere gaingaitzeko gai izatea da ospatuko duguna. Gure arteko auzolanaren indarra. Urriaren 4ean lanean aritu ginenok jai giroan egoteko aukera ere eskainiko digu.

Eskertza jaialdia

Azaroak 7, larunbata

■ 13:00 Lotzen GaTTunk abestia guztion ahotsetara Mikel Laboa plazan.

■ 14:30 Herri bazkaria frontoian. Menua: paella, txahal masailak saltsan, arroz esnea eta kafea. Prezioa: 6 euro 16 urtetik beherakoentzat, besteentzat 12 euro. Salmenta puntuak: Udarregi Ikastolako idazkaritza eta Txirrista tabernan azaroaren 2ra arte.

■ 18:00 Erromeria frontoian. Ondoren, herriko musika taldeen kontzertua frontoian.

Auzolanerako deia

Urriak 31, larunbata

Urriaren 4ko jaialdian Aranerren pilaturiko hondakinak garbitzeko auzolanerako deialdia egin dute Usurbilgo Udalak eta Udarregi Ikastolak, larunbat honetarako, urriak 31, goizeko 09:00etan Puntapaxen. Buztinzulotik Ugartetxeberiraino erreka garbitu nahi da. "Auzolanerako prest legokeenak, katuskekin etortzea nahikoa luke, handik aurrerako antolakuntzak bideratuko baitu", ohartarazi dute.

Zozketak

Kariberako bidaiak: Zenbaki saritua 9.140 izan zen. Garikoitz Urkizu Mendizabal donostiarrari egokitu zaio.

Gure Zozketa:

-Zenbaki saritua: 51.855.
-Ordezko zenbakia: 2.689.

Gattunk DVD-a salgai

Lizardin eta Laurok-en daude salgai. Aurkezpen ikuskizuna, bideo-kli-pa eta Ikastolaren inguruko dokumentala batzen ditu DVDak.

ZALDIGAIN

ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak...

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax. 943300045

URPI Leihok

urpileihok@gmail.com

943 50 80 95 • 688 81 93 33
nagusia 10 (atek) USURBIL

txirriStra

TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Jubilatuen Martxan



Urriaren 17an 10 kilometroko ibilbidea osatu zuten. Argazkian, Aginagatik joan zen taldea.

Udazkenean ospatzen den Gipuzkoa mailako zahar egoitzetako Jubilatuen Martxa neurtuko argazkia duzue ondokoa. Argazkiarekin batera, Maria Angeles Arrutiren idatzi hau duzue martxa haren lekuko: "Urriaren 17an, larunbata, Pa-

sai Donibane, Lezo, Errenteria, Trintxerpe, eta azkenik, Pasai San Pedro, lotu zituen ibilaldiak. 8,5 kilometrokoa omen zen, baina azkenean 10 bat kilometro egin genituen, hara eta hona. Eguraldi ederra izan genuen eta bazkaria ere bai. Nahikoa lan egiten dute hainbat

lagunentzat horrela antolatzen. Esker mila denontzat. Aginagatik joan zen taldea; ezkerretik hasita, Joxe Luix Bereziartua, Koro Labaka, Maria Angeles Arruti, Pilar Errasti, Mari Kontxi Maioz, Santi Algorta, Joxe Mari Bengoetxea eta Miren Iparagirre".

Usurbilgo Herritar Txartela diseinatzeko lehiaketa, azken txanpan

Ordainketak egin eta identifikaziorako txartel propioa izango du Usurbilek. Herritar txartelaren izena eta irudia hautatzeko lehiaketa irekia antolatu da. Oinarrien berri hurbilago.com atarian jaso dezakezue.

18 urtetik gorako usurbildarren-tzak txartel berri hau, VISA-ren parekoa izango da. "Honenbestez, Hurbilago elkar-tekoak diren denda eta establezimenduetan ez ezik, herriko beste saltokietan eta mundu osoan erabili ahal izango da ordainketak egiteko; hori bai,

Hurbilagoak diren dende, abantaila eta deskontu bereziak eskainiko dituzte.

■ Helburua: lehiaketa publiko eta ireki bidez, txartel berriaren izena eta irudia hautatzea.

■ Diseinu lana: formatuak ohiko kreditu txartel baten neurrietara egokitua behar du izan: 8,6x5,4 cm.

■ Kontuan hartuko diren irizpideak: "usurbildarrak identifikatuak senti-tzen garen irudia izatea baloratuko da, diseinatutako markaren balio artistiko eta simbolikoa, komunika-tzerakoan duen indarra, berritzailea izatea, erakargarria... eta aldi berean

patrikan eraman behar dugun txartel baten ezaugarrietara egokituko dena".

■ Hautaketa: aurkeztutako lanetatik hiru egokienak hautatuko ditu epaimahaiak. Hiru lanak jendaurrean jarriko dira erakusgai eta herri-galdeketa bidez erabakiko da hiru lanon artean, lan irabazlea.

■ Saria: 500 euro irabazlearentzat.

■ Lanak aurkezteko azken eguna: azaroak 6, Usurbilgo Udalean.

■ Informazio gehiago: hurbilago.com, usurbil.eus edo udallexean.

"Pim & Pom" haurrentzako filma, igandean Sutegin

"Pim eta Pom etxe-katu bihurriak dira. Egun batean, beren jabearen bi ilobak, Tracey eta Stacy, bisitan etortzen dira eta katuak parke-ramateko baimena eskatzen dute. Baina neskatila maltzurrek benetan nahi dutena katuak lapurtu eta beraiekin beste hiri batera eramatea da". Hala dio "Pim eta Pom" filmaren sinopsiak. 4-8 urte arteko haurrentzako zinema igande honetan, azaroak 1, 17:00etan Sutegin. Udalak, Ziortza Gazte Elkartearekin elkarlanean antolaturiko proiektiorako sarre-rak egunean bertan eskuratu ahal izango dira, 3 eurotan.

Martxora arte luzatuko da haurrentzako zine zikloa

Igandeko proiektioarekin abiatuko da, Udalak Ziortzarekin elkarlanean martxora arte antolatu duen haurrentzako hileroko zine zikloa. Lehen igandeetan izango da, 17:00etan Sutegin. Sarrerak 3 euro balioko du. "Yugo eta Lala", "Annaluse eta Anton", "Irabazle eta galtzaile" eta "Lotte" izango dira proiektatuko diren hurrengo filmak. Iaz arrakastatsua suertatu zen ekimena. Udalak emandako datuen arabera, batz best 100 haur inguru joan ziren proiektioetara.



Igandean, arratsaldeko 17:00etan Pim & Pom filma. Sarrera, 3 euro.

Motxian Eby, esketx lehiaketa

Hala izena du Oarsoaldean eta Buruntzaldean, DBH-ko ikasle-entzate antolatu den esketx lehiaketa berriak. Nahi adina lan aurkez daitezke, bakarka nahiz taldean eta gai librean, azaroaren 15era arte.

Umorea, lanen originaltasuna, karakterizazioa edota exekuzio teknikoa baloratuko dira. 300 eta 200 euroko sariak eskuratzeko aukera dago. Informazio gehiago: motxianeby.eus

Konpartsa kide berriak nahi dituzte Lauburun

Sormena landu eta haur bati baino gehiagori ikara sortzen dieten buruhandiei beldurra galtzen laguntzeko ekimena antolatu du Lauburu, Usurbilgo Erraldoi eta Buruhandien Konpartsak eta Txirinbolo dendak, larunbat honetarako, urriak 31, 17:00etatik aurrera frontoian. Karetak lantzeko tailerraz ari gara. Guraso eta haurrei zuzenduriko ekimen honetan, eginak aurkituko dituzten ereduak baliatuz aurpegiako estalkiok landu ahalko dituzte. Beharrezko materiala bertan banatuko da. "Hurbil dadila jendea. Ondo pasako dugu. Gurasoek ideiak izan ditzakete kareta egiteko. Haurrek erabiliko duten zerbaite egin ahalko dute", dio buruhandiak egiten dituen Angel Trullen Txirinboloko dendako langileak.

Musikak girotuko du tailerra. Konpartsak ere erraldoi eta buruhandiak pilotalekura eramango ditu, nahi duenak probak egin eta konpartsaren berri izateko. "Norbaitek interesa badu edo mundu honetan sartu nahi badu, etorri eta probatu. Harrobi polit bat sortu eta konpartsak aurrera segitzea nahi genuke", diote Lauburuko



Argazkian, Lauburu Erraldoi eta Buruhandien Konpartsak hainbat kide eta Txirinboloko dendaria.

LAUBURU KONPARTSA

"Kareta hauekin, igandeko desfilean gurekin parte hartzeko deialdia egin nahi genieke haurrei"

kide, Iñigo eta Andoni Arzallus, Manex Irabazabal eta Jon Mikel Elepek.

Konpartsan parte hartzeko, 12-13 urte eta 1,40 metrotik gorako altuera izatea eskatzen da. Eskertuko lituzkete kide berriak, "normalean buruhandi guztiak

ez ditugu ateratzen" eta.

Eskuz landutakoa, kalejirarako

Larunbateko tailerlean lantzen hasitakoa gero etxean bukatu eta borobildu ahalko da. Bezeran eginikoa gainera, igandean ospatuko den Artisautza Azokaren bueltan antolatu duten erraldoi eta buruhandien kalejiran erakutsi ahalko dute. "Kareta hauekin, igandeko desfilean gurekin parte hartzeko deialdia egin nahi genieke haurrei", adierazi dute.

Inauteri Festan, San Ixidro Egunean, Santixabeletan edo

ta Herri Anitza jaialdian parte hartu du Lauburu Konpartsak. Artisautza Azokaren ostean, beste ekitaldirik suertatzen ez bazaie, inauteriak arte ez dira berriz kalera aterako.

Hitzordu bikoitza

Urriak 31, larunbata

17:00-19:00 Karetak egiteko tailerra frontoian, haur nahiz helduentzat.

Azaroak 1, igandea

12:00ak aldera, erraldoi eta buruhandien kalejira udal-txetik abiatuta: Artzabal aldera joko dute lehenik, eta gero Kaxkora.

30 artisau inguru bilduko ditu igandeko Azokak

Postuak jarri nahi dituztenei zuzenduriko deialdi arrakastatsuen ostean, 30 bat artisauen lanak ezagutu ahal izango ditugu azaroaren 1erako Aitzaga Elkarteak antolatu duen azokan. Lanok ikusi eta erosketak egiteko aukera aparta izango da goizeko 11:00etatik aurrera frontoian. "Ukendu, txotxongilo, gozogintza, esnekiak, kontserbak, bitxiak, haurriak, egurra nola lantzen den, jostailuak, metala, beira, otarrak, zeramika, haziak, larrua, jantziak eta abar ikusteko aukera izango dugu", antolatzaileen esanetan. Hauekin batera, herriko gaztaingile koadrila ezaguna ere bertan izango da. Bai-



11:00etan zabalduko da Artisautza Azoka.

ta talogileak ere. Sagardo Egunaren bueltan kide berriak gerturatzeko eginiko deialdiak erantzuna ona izan du, eta taldea eraberritu dute.

Aitzaga, ixteko erabakiaren zain
"Nahiz eta lehen sei urtez elkar-

tea itxi ziguten, orain ere berdira egingo diguten mehatxupean egon, azokak aurrera darrai eta erronkari eutsiz, urtero bezala hor izango dugu guztion ikusgarri", Aitzaga Elkartearen esanetan.

Auzolanerako deialdia egin dute Kilometroak-ek eta Udalak

Kilometroetan landutako ideiarri jarraipena emanaz, larunbat honetarako auzolanerako deialdia egin dute bi eragileek. Horretarako, hainbat argibide eman dituzte: lanera hurbilduko direnei, arropa zaharra eta katiuskak edo oinetako egokiak eramateko deialdia egiten diete.

Larunbat honetan, Puntapaxen

Auzolanaren helburua Haranerreka garbitzea izango da eta horretarako hitzordua goizeko 09:00etan Puntapaxen jarri dute. Udalak, bere aldetik, erreka garbitzeko lanerako bitartekoak jarriko ditu.

Mikel Urdangarin: “Ni naiz sekula

Etxeko sukaldean sortzen ditu abestiak. Bakarrik, gitarraren laguntzarekin. “Hori erakutsi nahi dizuet, etxeko sukaldeko bakardade horretako Mikel hori”. Ez baxurik, ez biolinik, ez bateriarik... “Sortu ziren bezala, ahotsa eta gitarrarekin, besterik ez”. Hala aurkeztu zuen bira berria. Bitxia dirudien arren, hala da: 1997an hasi zenetik hona, talde baten babesean igo da beti oholtza gainera. Hauxe da hortaz, bakarka egiten duen lehen bira. Azaroaren 6an izango da gure artean, NOAUA! Kulturaldiaren baitan.

NOAUA! Uste baino gehiago luzatzen ari da bira hau.

Mikel Urdangarin. Bai, pentsatu baino luzeago. Uda amaieran etorri ziren udazkenerako proposamenak, eta ziurrenik horrela segituko dut. Datorren urterako ere atera da zerbait eta maiatza arte edo ibiliko gara horrela.

Seinale ona.

Bai, hala da. Lan asko ari naiz egiten, jendea hurbiltzen ari da kontzertuetara eta gozatzen ari naiz. Horrelakoetan badakizu, gustuko tokian aldarrik ez.

Urtarrilean iragarri zenuen bakarkako bira eta 20 bat emanaldi iragarri zenituen udaberriarako. Luzatu egin da ordea bakarka aritzeko apustua. Espero al zenuen?

Ikasi dugu gehiegi ez aurreikusten musikan. Pixkanaka joan behar da. Lehenik eta behin, hiru hilabeteko bira antolatu genuen. Topera ibili ginen urte hasieran, 25 kontzertu eskaini genituelako.

Berez, asmoa hau zen: biratxoia egin eta udan taldearekin grabatzen hasi. Baina oso polita izan zen biraren lehen zati hura, horrela jarraitzeko aukerak hasi ziren iristen eta urte bukaera arte luzatu da azkenean.

Kantu berriak idazteko astirik ez dut izan eta, nire artean, “gozatzen ari naiz, luzatzera noa”.

Hasieratik taldearekin ibili den bakarlaria izan zara. Taldearen babesik gabe, eroso dirudizu.

Taldearekin ibili naiz beti, batetik bestera. Sekula bakarrik ibili gabe nintzen, eta niretzat deskubrimendua izan da.



Bakarkako bira bat abiarazi zuen urte hasieran. Lau hilabeteko emanaldi sorta egiteko asmoa zuen baina harrera ona izan du eta urte bukaera arte luzatu du bira. Datorren astean Usurbilen izango da: azaroaren 6an Sutegin.

SUTEGIKO SAIOAZ

“Nik egin dezakedan proposamenik zintzoena. Hori da entzuleak topatuko duena. Honekin ez dut esan nahi taldearekin nabilenean proposamena zintzoa ez denik. Nire eskura dagoen proposamen zintzoena eta beteena dela hauxe. Nire ahalmen eta muga guztiekin”

Mikel Urdangarin bakarlaria deskubritu duzu zure baitan. Ba ez zalantzarik izan. Ni

naiz sekula bakarrik aritu ez den bakarlaria. Ze bakarlari mota da hau, beti jendearen babesa behar izan duena? Ariketa hori egitera ausartu gabe nintzen. Iaz banituen nire beldurrak, eta ez nengoen batere seguru. Galdera ikurrak banituen, erantzuteko zeudenak.

Egia esan, emanaldiak oso diferenteak dira bakarrik edo taldean. Askoz nekatuago bukatzen ditut emanaldi hauek. Pisu osoa zugan hartzea nabaritu egiten da, eta taula gainetik ere nabaritzen da begirada guztiak zuk jasotzen dituzula.

Taldearekin ordea pisua banatu egiten da, baina kasu honetan nabaritzen duzu pisu guztia zugan eta batzuetan

kokiltzeko arriskua dago. Pasa zait inoiz edo behin, antzokian txiki sentitu baina ondoren sentipen hori gainditu ere bai, zorionez.

Soiltasun horretan, seguru emanaldi batean baino gehiagotan sortu dela publikoarekiko konezio ezberdin bat.

Banuen intuizio moduko bat. Imajinatzen nuen hori gerta zitekeela. Biluztasun horrek nolabaiteko lotura piztuko zuela. Biluztasun horretan, publikoarekin konektatzen asmatzen baduzu, harreman hori oso sendoa bihurtu daiteke.

Deskubrimenduaz galdeztzen zenidan lehen, ba bakarka ari naizenetik, lehen aldiz sentitzen dut nire gitarra! Taldearekin ari zarenean, batzuetan oso atzean geratzen da gitarra akustikoa. Eta ñabardura hori sekulako deskubrimendua izan da niretzat.

Usurbilen aritu izan zara aurretik. Baina beti taldearekin. Honakoan bakarka zatoz, eta bira berriarekin plaza asko egin eta gero. Azaroaren 6an ostirala, zer topatuko du Sutegin auditoriora hurbiltzen den entzuleak?

Nik egin dezakedan proposamenik zintzoena. Hori da entzuleak topatuko duena. Honekin ez dut esan nahi taldearekin nabilenean proposamena zintzoa ez denik. Nire eskura dagoen proposamen zintzoena eta beteena dela hauxe, hori esan nahi dut. Nire ahalmen eta muga guztiekin. Eta nire muga horiek gainditu nahi horrekin ere.

Halako hazkunde bat bizitzen ari naiz eta polita da.

“bakarrik aritu ez den bakarlarria”

NOAUA! Abesti berririk ere entzungo dugu, ezta?

Mikel Urdangarin. Zuzenekoak eman eta konposatzea, hori zen bira hasierako nire asmoa. Baina konturatu naiz indarrak jotzen eta emanalditik emanaldira sendo egoten xahutu ditudala. Uda ondoren, kantu pare bat idazteko denbora izan dut eta horiek eskainiko ditut Sutegin.

Bestalde, emanaldi sorta honekin zuzeneko disko bat egiten ari gara, 12-13 kantuz osatua. Emanaldi asko grabatu ditugu eta aukeraketa baten emaitza izango da diskoa.

Gorabeherak daude artista baten ibilbidean. Orainxe bertan, une gozoan zaudela esan al daiteke? Ni horrela sentitzen naiz. Abiatu aurretik indartsu sentitzen nintzen, baina gure indar hau oso hauskorra da. Beti gaude



Azaroaren 6an arituko da Sutegin, NOAUA! Kulturaldiaren baitan.

MIKEL URDANGARIN

“Egia esan behar bada, ez nuen horrelako erantzunik espero. Alde horretatik sekulako oparia jaso dut”

publikoarekiko konfidantza berri beharrean.

Bira honetan jendearen berotasuna sumatu dut. Harrera ona izan dut toki askotan. Eta kasu batzuetan, ez nuen horrelakorik espero. Horregatik ikasi dut gehiegi ez aurreikusten eta

ilusioa neurrian dosifikatzen. Eta gero gerokoak.

“Gozatu Mikel, halaxe esaten diot nire buruari”

Egia esan behar bada, ez nuen horrelako erantzunik espero. Alde horretatik sekulako oparia jaso dut. Baina zuhurtzia handiarekin bizi dut. “Gozatu Mikel”, halaxe esaten diot nire buruari, “ez dakizu noiz arte iraungo duen-eta”.

NOAUA! Kulturaldia Mikel Urdangarin

- Eguna: Azaroak 6 ostirala.
- 20:00etan, Sutegin.
- Sarrerak: 10 euro. Aldez aurretik 8 euro Lizardin, Artzabalen, Bordatxon, NOAUA!n. Bazkideek 6 euro (aldez aurretik eta NOAUA!n bakarrik).
- Antolatzailea: NOAUA!.
- Babeslea: Usurbilgo Udala.

Azaroaren 8an, ‘Pikadero’ filma Sutegin

Azken Zinemaldian, Zuzendari Berrien sailan lehiatu zen ‘Pikadero’ filma. Izendapenen berri eman zuen egunean, Jose Luis Rebordinos Donostiako Zinemaldiko zuzendariak bitxia hitza erabili zuen. Film bitxia zela, alegia, zuzendari eskoziar batek euskaldunei buruz egindako filma delako. “Euskaldunen ikuspegia islatzen da, umore ukitu batekin. Europa iparraldeko umorea du, kasik Aki Kaurismakiren estilora”.

Barbara Goenaga eta Joseba Usabiaga dira komedia erromantiko honetako protagonistak eta Ben Sharrock eskoziarra, filmaren zuzendaria.

Krisi ekonomikoak gogor erasotako Euskal Herriko bikote



Donostiako Zinemaldian egin zen film honen estreinaldia eta kritika ederrak batu zituen. Barbara Goenaga eta Joseba Usabiaga dira protagonista nagusiak.

baten istorioa interpretatu dute.

Suitzan saritua

Zuricheko zinemaldia (Suitza) ospatu zen iraila amaie-

ran, eta Ben Sharrockek zuzendutako “Pikadero” euskarazko filmak kritikaren saria irabazi zuen. Datorren astean Sutegin izango dugu ikusgai.

NOAUA! Kulturaldia “Pikadero” filma

- Azaroak 8 igandea.
- 19:00etan Sutegin.

Argindarrik gabe Atxegalden



Urriaren 20an, generadore baten matxurak eragin zuen argi mozketak.

Urriaren 20an Atxegalden, Mahaspildegi elkarte inguruan zegoen argindar poste batean egin beharreko lanengatik, generadore bat jarri zen Erdiko kalean. Gauean ma-

txura izan zuen. Gasoil ihesa izan zuen eta kea botatzen hasi zen. Berehala konpondu zuten matxura, baina auzoa argindarrik gabe geratu zen ordu batzuek.

Sua Egiluzetxiki baserriko lursailetan



Kableek elkar ukitzean txinpartak eragin eta horrek piztu zuen sua.

Astelehen honetan, Arratzain azpian dagoen Egiluzetxiki baserriko lursailetan sua piztu zen. Hego haize zakarrak, lursailok zeharkatzen dituzten argindar kableak mugiarazi,

elkar ukitu eta elkar ukitzeak sorturiko txinpartek eragin zuten su txikia. Suhiltzaileek berehala itzali ahal izan zuten sua eta zonaldeko argindarra eten behar izan zuten.



**ASEGURU ARTEKARITZA
ETA GESTORIA ZERBITZUA**

Telf: 943 37 11 18 fax-a: 943 37 19 97
pikabea@pikabeaaseguruak.com

Uzturre Plaza, 8 Lasarte-Oria J-0078EUS



Lontxo Zubiria

Agur, Dominika Agergarai “Olhaso”

Abiatu haiz, lagun, azken bidaiara. Azken aste eta egunak oso gogorrak izan dituk hiretzako eta hire familiarentzako baina libre haiz azkenean. Bidaia honetan ez duk mugarik izango, ez duk ez jendarmerik eta ez guardia zibilik muga jarriko dianik. Hortxe ibiliko haiz hainbeste maite hituen Orhi mendia- ren magaletan, Bardeetako paraje lehorretan eta itsas bazterretan barrena.

Hemen gelditu garenok jarraituko diagu. Maria Helenerekin izaten hinentzen ukuiluko lanak egiten eta hor elkartzen gintuan arratsaldeetan. Orain Agnes alabak hartuko dik hire tokia. Luixik ere izan- go dik zertan lagundua.

Zenbat afari eta kafe goxo zuen sukalde goxo horretan. Guk Gipuzkoako kontuak aipatzen geniz- kian, hik Zuberoako eta Iparraldekoak ulertzen la- gundu izan diguk beti.

Etxe hartan entzun



Dominika Agergaraiak harreman estua zuen usurbildar askorekin.

LONTXO ZUBIRIA

“Aginaga eta Usurbilgo askori hik lagundu diguk hobeto ezagutzen Zuberoako jendea. Harremana asko zabaldu genian zuen Bil-Xokoako jendea eta hemengoa lotuz”

genian lehenbiziko aldiz gero Azkorria izango zen artzain kooperatibari buruzko hire hausnarketa. Lau-bost urte beranduago hamasei baserritar gehi- gorekin ikusi haugu gazta egiten jo eta su, baserrien etorkizuna ziurtatu na- hian.

Zuberora Aginagatik ni neu 1977an iritsi ninduan

lehenbiziko aldiz, Pello eta Anttonekin. Egun gutxi egin genizkian baina ondo beteak izan hituen. Geroztik, Aginaga eta Usurbilgo askori hik lagundu diguk hobeto ezagutzen Zube- roako jendea. Harremana asko zabaldu genian zuen Bil-Xokoako jendea eta hemengoa lotuz. Zenbat bilkura, otordu eta tra- go elkarrekin... Gaur Bil- Xokoari esker bikaina duk hango eta hemengo eus- kaldunon artean lortu den elkar ezagutza.

Urriaren 22an baserriko salan ikusi haugu azken al- diz, Dominika, azken bidaia abiatzeko orduan. Izan diagu hire aurrean familian negar egiteko aukera. Urdiñarbeko hilobian Mixel Etxekoparen txirularen doinuaz, eta han bildu ginenak ‘Xalbadorren heriotzean’ kantua abestuz eman diagu lur, familiak eta lagunek. Hire lagun handie- na izan den Llargorekin ba- tera esaten diagu guk ere: Agur, Dominika, hoa trankil hire irribarrez!

Ika-Mika

Dominika Agergarairi

Itzali zaigu maitasun eta bakean

Larrazkeneko orriaren antzera
Bere anima igo da, infinitoaren ziklora
Itzuli zauku,

sormeneko Izanarekin batzera
Bat izaiteko.

Behean den guzia
bizi da,

Goienetan delakotz

Unibertso Handiaren

Ispilu Txikia
Gizakia dugu
eta

Gizaki Handia
Izadi Ttipiaren
Iduri

Hago Adiskide Kantari

Izaeraren Sorburuko Betiko Argian !!!

...Xoriak ixilik daude bortuetan.

Arbailetako oihanean abereen aiuma itzali da
Eta gu Hasperenez

Intzirika, Intzirika, Intzirika

Ari gara...

Sutegi Udal Liburutegiak, 10 urte

Ospakizun artean da Sutegi udal liburutegia. Larunbatean izan zen Liburutegien Egunaren harira, zenbait ekimen antolatu dituzte egunotan; literatura eta zinema lotzen dituen erakusketa esaterako. Asteazkenean bestalde, Miriam Mendoza ipuin kontalariaren saioa antolatu zuten eta ostegun honetarako, 19:00etan, VI. Euskarazko Literatura Topaketa antolatu dute. Garazi Kamioren "Orube abandonatuak" liburua komentatu da, idazlea saioan bertan dela. Baina ekitaldiok gain, urteurren borobil baten atarian da liburutegia. Sutegi inauguratu zeneko 10 urte beteko baitira azaroaren 5ean. Liburutegiak, ospakizun astea antolatu du:

Azaroak 2-7

"Baietz Sutegi Liburutegiaren 10 urtetako ibilbideari buruzko 100 mezu jaso!: zer da zuretzat Sutegi Liburutegia, zer iradokitzen dizu, zein liburu liluragarri aurkitu zenuen bertan... Partekatu zure hitzak edo irudiak gurekin sarean #10urte traola erabiliz":

Twitter: @usurbib

Instagram: sutegi05

Facebook: Usurbilgo Sutegi udal liburutegia

Azaroak 3, asteartea

18:00 Pello Añorga maisu handia ipuin kontaketan, 5 urtetik gorako haurrentzat.

Azaroak 4, asteazkena

Egun guztian zehar, "Liburu/pelikula bat, euro bat" ekimena. Liburutegian pilatzen joan diren liburu eta dvd errepikatuak salgai jarriko ditugu euro batean, ondoren, bildutako diruarekin, liburu eta ikus entzunezko berriak erosteko. Parte hartu nahi?":

Herrialde anitzetako dantza ikuskizuna Sutegin

Irailaren 11ko Usurbil Herri Anitza jaialdia, herrialde ezberdinetako dantzen erakuslelha izan zen. Warda Mallalek antolatu zuen saio hura, baita larunbat honetan, 18:00etan Sutegin taularatuko dena ere. "Shabbick Labbick", herrialde ezberdinetako mugimendu eta dantzak nahastean dituen ikuskizuna programatu du, "kolore eta erritmo ugari espazio berean elkartuz, esperientzia magikoa bilakatzea du helburu". Hainbat hirietan aurkeztu duen saioa Sutegira dator urriaren 31n. Sarrerak: alde zuzen 8 eurotan, egunean bertan 10 euro. o.uarda@hotmail.es / 637 256 851



10 urteko ibilbideari buruzko 100 mezu jaso nahi dituzte #10urte traola erabiliz.

Azaroak 5, osteguna

18:00 "Liburutegia kalera aterako dugu: Shakti Olaizola kontortsionista eta "Irakurritz" bere saioa frontoian. Ikusiko dugu nola irakurritz dena joko, erronka eta gozamen bihurtuko den, eta horiei batuko zaizkie dantza, ahotsa, orekak eta kontortsioa".

Azaroak 6, ostirala

Egun guztian zehar, irakur puntu berriak: "10. urteurrenereko Irakur Puntu berriak banatuko ditugu (Sorpresa!!!); eta mezuak bidaltzeko WHATSAPP bidezko erabiltzaile-Liburutegi komunikazio bide berria abian jarriko dugu!".

Informazio gehiago...

Blogeko helbidea: liburutegiak.blog.euskadi.net/usurbil/?lang=es

Ordutegia: Asteleheneetik ostiralera 10:00-13:00 / 16:00-19:30. Larunbatetan 10:00-13:00.

Telefonoa: 943 360 692.

E-posta: biblioteca@usurbil.net

Facebook: Usurbilgo Sutegi Udal Liburutegia

Twitter: twitter.com/usurbib

Instagram: sutegi05

Youtube: youtube.com/sutegi05

Datorren astean, Gure Esku Dago-ren jardunaldia

Eskura hausnarketaren inguruan, jardunaldia antolatu du Gure Esku Dagok. Azaroaren 6an, 19:00etan Potxoenean. "Erabakiaren aroari hasiera eman nahirik, ZER erabaki, NOIZ eta NOLA erabaki, hauxe izango du ardatz hemendik aurrera Gure Esku Dago-ren ekimenak. Bide guzti hau, ariketa kolektibo bidez egin nahi da, horrela kide guztion ekarpenak jasotzeko aukera izango delarik". Eskura txostena gureeskudago.eus/eskura helbidean dago, eta ekarpenak egiteko aukera eskaintzen du. "Anima zaitetz! zure ekarpenak beharrezkoak dira eta. Herri bat gara. Erabakitzeko eskubidea dugu. Herritarron garaia da".

Alegia-Lekunberri bidea osatzera, azaroaren 8an

Azaroaren 8rako antolatu du hurrengo txangoa Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak; Alegia-Lekunberri artean. Izen ematea zabalik dago azaroaren 4ra arte:

■ Irteera hitzordua: 07:30etan, Oiarde Kiroldegitik.

■ Joan etorria: autobusez.

Ibilbidea: 24 km.

■ Izen ematea: 12 euro, azaroaren 4a baino lehen, kontu zenbakiotako batean:

Rural Kutxa: 3008 0259 1630 0543 0321

Kutxabank: 2095 5069 0710 6848 9805

■ Oharrak:

-Plaza mugatuak.

-Otordua ibilbide amaieran; janaria norberak eraman, edaria antolatzaileen esku.

-Andatza M.K.T.-k antolaturiko irteeretan parte hartzeko derrigorrezkoa da, mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean edukitzea.

Informazio gehiago: andatzamendizale.info edo andatza@hotmail.com

Antolatzailea: Andatza M.K.T.

Final laurdenetarako heldu da Asier Azpiroz

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalerdietara heltzeaz izan da zubietarra. Larunbatean Urretxu-Zumarragan ospatu zen final laurdeneko saioa Agin Laburuk irabazi baitzuen. Berarekin batera, Beñat Iguaran eta Nerea Elustondo saikatu ziren. Bosgarren postuan amaitu zuen Azpirozek.

Errigorako otarrak eskatzeko epea zabalik

Sortzen, AEK, Zazpiak Bat, Ikastolen elkarte eta Errigorak "Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka" kanpainako otarrak azaroaren 8ra arte eska ditzakezue, NOAUA! Kultur Elkarte gozotzan, Aizpurua Okindegian, Lizardi liburu dendan, Kaffa kafetegian eta Txiriboga, Artzabal eta Bordatxo tabernetan. Orain izena eman eta otarrak jasotzean, egin beharko dira ordainketak. 50 euro balio dute. Nafarroa hegoaldean bertan ekotzitako produktuok dituzte: ardo beltz botila, litro erdiko oliba olio birjina estra botila, melokotoia almiabarrean, orburuak, potxak, kardua, mahats zukua, almendrak, pikillo piper ontzi txiki eta handi bana, zainzuriak, melokotoi marmelada, pikillo piper untapan. Jasotako laguntzaren %25, Nafarroa hegoaldeko euskalgintza bultzatzera bideratuko da. Informazio gehiago: errigora.eus

Larunbat honetan, Zubietako V. Mendi Duatloia

Beste urte batzuekin alderatuz, beranduxeago ospatuko da Zubietako Mendi Duatloia. Larunbat honetan, arratsaldeko 15:30ean hasiko da lasterketa. Partaideek Zubietako inguruak zeharkatuko dituen ibilbidea osatu beharko dute.

Ezaugarriak

Data: Urriak 31 larunbata.
Irteera: Zubietako plazatik.

Irteera-ordua: 15:30ean.

1. Sektorea: 5,75 km mendian korrika.

2. Sektorea: 14 mendi bizikletaz.

3. Sektorea: 2,3 km korrika.

Prezioa: 15 euro aurretik. 20 euro, egunean bertan.

Izen-ematea: mendiduatloia.com



Larunbatean, arratsaldeko 15:30ean hasiko da lasterketa.

Eskubaloiko errifa zozketa

3.031 izan da zenbaki saritua. Antton Errekondori egokitu zaio, Usurbil Kirol Elkartearen errifa zozketako saria; mariskada eder bat.



Antton Errekondorentzat izan da saria, mariskada bat.

Usurbil Kirol Elkarte, hauteskunde betean

Aste honetara arte zegoen, zuzendaritza berritzeko behin behineko hauteskunde batzordeari alegazioak aurkezteko epea. Egunotan burutzeokoak dira behin betiko batzordea osatzeko bilkura. Hurrengo urratsa; azaroaren 1ean, behin behineko hauteskunde errola argitaratuko dute, eta aipatu eroldaren aurka helegiteak aurkezteko epea zabaldu da gero, azaroaren 15era arte.

Lasarte-Oriako krossa

Aurreko igandean ospatu zen Lasarte-Oria Bai lasterketa. Urtero legez, usurbildar ugari aritu ziren korrika. 62 lasterkari, eta horien artean, Iñaki Gericia Juan eta Rosa Uribe Navarro izan ziren helmugaratzen lehenak. Emaizak www.noaua.eus web orrian topatuko dituzue.

Paleta ikastaroko izen ematea ixtear

16 urtetik gorako emakumei zuzenduriko ikastaroan izen emateko epea, ostegun honetan itxiko dute. Apuntatzeko bideok dituzue: 943 372 498 / kirola@usurbil.eus Ikastaroko entrenamendu saioak, azarotik maiatzera izango dira. Ordu eta egunotan:

■ Astelehenetan, 20:00-21:00

■ Asteazkenetan, 09:30-10:30 eta 20:00-21:00

Futbola Haranen

Urriak 31, larunbata

10:00 Alebin mutilak:

Udarregi 5A-Urnieta 5A

Udarregi 6A-Urnieta 6A

11:30 Infantil mutilak:

Usurbil F.T.-Hernani C.D.

15:30 Jubenil mutilak:

Usurbil F.T.-Antigua Luberrri K.E.

Eskubaloia Kiroldegian

Urriak 31, larunbata

■ 10:00 Alebin neskak,

Buruntzaldea:

Udarregi 5B-Udarregi 6C.

■ 10:00 Alebin neskak,

Buruntzaldea:

Udarregi 5A-Urnieta 6

■ 11:00 Infantil neskak,

Gipuzkoako Txapelketa:

Udarregi B Usurbil-Bera Bera

■ 12:30 Infantil mutilak,

Gipuzkoako Txapelketa:

Udarregi A Usurbil-CB Urola A

■ 15:45 Kadete neskak,

Euskal Liga:

Usurbil K.E. "A"-Aiala ZKE

■ 17:30 Jubenil neskak, Euskal

Liga: Usurbil K.E.-Aiala ZKE

■ 19:30 Senior mutilak,

1. Nazionala:

Ucin Aluminio Usurbil-Trapagaran

Azaroak 1, igandea

■ 09:10 Infantil nesken Euskal Selekzioaren kontzentrazioa.

■ 11:05 Infantil mutilen Euskal Selekzioaren kontzentrazioa.

Eneko Furundarena Maiz gonbidatu dute.

Eskubaloia,

Euskal Selekzioa

Azaroak 1, igandea

■ 15:40 Jubenilen saioa, Arrasateko Iturri Kiroldegian. Ane Irzabal Esnaola eta Estitxu Berasategi Eizagirre gonbidatu dituzte.

■ 15:40 Kadete mutilen entrenamendua Getxoko Faduran. Eneko Iribar Zumeta gonbidatu dute.

■ 17:30 Kadete nesken entrenamendua Getxoko Fadura: Ainhoa Illarramendi Jauregiberri gonbidatu dute.

■ 17:30 Jubenil mutilen entrenamendua, Arrasateko Iturripen. Usurbil K.E.-ko Mikel Atxega Arruti gonbidatu dute hitzordura.

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
Info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

URDAINTZI eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
eraikuntzak@euskalnet.net
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ETXEBIZITZA**Salgai**

Pisu bat salgai. 90 metro karratu. 3 logela, 2 bainugela, jan-egongela eta sukaldeak jantokia aparte duela. 605 707 642.

Txaramunto kalean etxebizitza salgai. Hegomendebaldera begira. 98 m² + balkoia, egongela/jangela eta sukalde. 3 gela. 2 komun. Garaia eta trastelekua aukeran. Iker (686912979)

Atikoa Zubietan, 110m² erabilgarri. 2008-an guztiz berritua, teilatuaen estruktura ere. 3 logela handi, 2 komun, 30 m²-ko egongela. Haize egokitu. 225.000. 669781959 Julen

Pisu salgai Santuenean. Egoera onean. 3 logela, sukalde, komun eta nahi izan ezker garaje moduko batekin. 659 460 979.

2 gela, komun, sukalde eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehenez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komun, hall, sukalde. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Usurbilen edo inguruan eraikgarria den lur eremua erosiko nuke. 636393237

Pisu salgai, Artzabalen. 3 logela, 2 komun, terraza eta trastelekua (altzariekin) eta garajea (2 kotxerentzat). 657 771 126

Etxea salgai (Kutxa gainean). 3 logela, egongela, sukalde, komun, trastelekua. Dena kanpoaldera. 607 572 106

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komun eta sukalde. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Pisu salgai Urdaiaigan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m². Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komun. Komun salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Etxebizitza salgai Zubietan. 1.Esk. 118 metro koadro, baratza 2.500 m eta oilategia 140 m. Erreformatu egiteko. 200.000 euro. 616 649 674 Jabier.

Pisu salgai edo alokairuan Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukalde egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisu salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Alokairuan

Alokatzeko pisu bila nabil. Telefono zenbakia: 615730680

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

2 lagunentzako alokairuko pisu bila. Behoko solairua eta terrazaduna bada hobe. 610 73 59 64.

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona.

657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. 682 214 506.

Emakume bat gela baten bila dabil partekatzeko 17:30-18:30 deitu (Marisol). 674463942

MOTORRA**Salmenta, garajeak**

Baju komertzial bat salgai erdiko kalean. 62 metro koadro, solairu batekin. 600 369 013 / 943 371 827

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Errekatxiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunearan. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra uzteko izango litzateke. 645720571

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro karratukoak. Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Txapeldun taberna alokairuan edo salgai: 676 976 005.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Emakume bat eskaintzen da, goizez, 2 edo 3 orduz etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 620 625 823.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel. 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekuetan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Mutil gazte bat LH eta DBH-ko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Tel. 617 916 242. (Oinatz)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketa lanak egiten, jatetxeren batean harraskako garbiketarako egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan aritzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Lan bila nabil. Interna moduan eta umeak zaintzen. Tel. 645 530 490

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldetan, garbiketetan. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Or-

duka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziarekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziarekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel. 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia asorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Latina, frantsesa, ingelesa, euskaraz klaseak ematen dira, etxean. Ekonomikoa. 600766068

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketaren, plantatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezin edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbi-



Pasa den larunbatean, 1973. urtean jaiotakoek ospakizun eguna izan zuten. Atxega Jauregiaren atariko berdegunean ateratako argazkian dituzue bazkarira animatu zirenekin.

OHARRA: Azaroaren 6an aterako dugu hurrengo NOAUA! asteakaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: urriak 26 astelehena. E-postaz: erredakzioa@noaua.eus

keta egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papelak. 618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketari... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna eskaintzen da ume txikiak zaintzeko edo garbiketarako. Irailetik aurrera. Arduratsua. 671 547 567.

Mutil gazte bat eskaintzen da, ingelesa, frantsesa, latina, filosofia emateko. Merkea. 600 766 068. Jokin

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile titulua-rekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen prest. Interna bezela ere. Edozein ordutegi. 608299579

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientziarekin. 722 575 781.

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketari lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta papelak. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen. Esperientzia daukat. Ezagutza, sukaldaritzan, garbiketari... 604148284.

Lan bila nabil. Esperientzia sukaldari laguntzaile bezela, zerbitzari bezala, garbiketari, karga eta deskargan, frutadendan... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketari lanetarako edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita

garabi eta orgatilara ere. Lan prebentzioko ikastaroa daukat. Esperientzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan nahiago. Esperientziarekin, eta papelak egunean. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Xiomara. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu interna joateko moduan. Klinika laguntzaile titulua-rekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketari lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 631 333 251

Neska, garbiketari lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 653 620 770

Neska, garbiketari lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno edo orduka. Gauak etxean edo ospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziarekin. 638 602 597.

Neska euskaldun batek lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gazteekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka... Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketari eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketari industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketari lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularak emateko prest. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile titulua-rekin. 619511789 / 943 760418.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldari laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska

ka euskaldun bat naiz, eta garbiketari edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

BESTELAKOAK

Eguzki-elkartean bazkide egiteko aukera. Tel. 677 62 14 65

Giltza batzuk galdu dira, erdigunean. NOAUA!n edo Udaltzainguan uztea eskertuko nuke.

Bosch markako garbigailu bat salgai. Urte bete pasatxo dauka. Berri berria dago. Tel. 943 363 201.

Irailean Zubietako Lertxundi gainan aurkitu nituen betaurreko batzuk. Berreskuratzeko deitu Euxebiori: 943362665.

3 katu oparitzen ditut, 3 hilabete eta erdi dituzte. Tel. 688 827 995.

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

Giltza batzuk galdu ditut DIA supermerkatu inguruan. Diru-zorro beltz batean, eta 4 giltzekin. Aurkitu badituzu udaltzaingora eramatea eskertuko nuke.

Hiru plazako eta bi plazako sofak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzeekin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@hotmail.es

Usurbil, Zubieta edo inguruan, 15.000 m lur saila alokatuko nuke. Enara: 647 438 895

Hemengo urra erosiko nuke. Deitu 634 409 888.

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. As-teburutan. 688 888 176. Pablo.

Mutil gazte bat prest dago, rotatorearekin lurra biratzeko eta eskuz buelta emateko lurrari. Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenean ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Aberre-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Oa botika.....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 29	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Ostirala 30	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Larunbata 31	GANDARIAS-URIBE Iñigo	Loiola 9. Lasarte
Igandea 01	GANDARIAS-URIBE Iñigo	Loiola 9. Lasarte
Astelehena 02	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Astearte 03	GANDARIAS-URIBE Iñigo	Loiola 9. Lasarte
Asteazkena 04	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Urriak 29 - azaroak 8

Osteguna 05	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Ostirala 06	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Larunbata 07	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Igandea 08	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

<https://www.cofgipuzkoa.com/>

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani. 943 55 20 87
22:00 - 09:00

Agenda urria/azaroa

30 ostirala

■ **Azken ostiraleko elkarretaratzea** 20:00etan Mikel Laboa plazan.

31 larunbata

- **Aranerreka garbitzeko auzolan deialdia.** 9:00etan Puntapaxen.
- **Buruhandiak lantzeko tailerra.** 17:00-19:00 frontoian.
- **Kantujira** 19:00etan Mikel Laboa plazan.

01 igandea

- **Pim eta Pom filma Sutegin.** 17:00etatik aurrera.
- **Artisautza Azoka.** 11:00etatik aurrera frontoian.

“Bateginik” erakusketa zabalik



Verdini Dantza Taldekoek hartu zuten parte “Bateginik” erakusketaren irekieran.

Aurreko ostiralean inauguratu zuten Sutegin, inklusibitatea eta down sindromea ardatz gisa hartuta, Jose Luis Elexpek Usurbilgo Udalarekin elkarlanean antolaturiko “Bateginik” erakusketa. Verdini dantza taldekoek parte hartu zuten irekiera ekitaldian.

“Pelex”en eta Sofia Arostegiren lan bilduma ikusgai izango duzue hilabetez, kultur etxeko aretoan, egun eta orduotan:

- Osteguna eta ostirala: 18:00-20:00.
- Larunbatetan: 12:00-14:00 / 18:00-20:00.
- Igandetan: 12:00-14:00.

VI. Euskarazko Literatura Topaketa

Honakoan, Garazi Kamioren Orube abandonatuak (Elkar) liburua aztertuko dute. Ostegun honetan, urriak 29, arratsaldeko 19:00etan Sutegi udal liburutegian. Egilea bertan izango da. Liburuak jada eskuragarri daude udal liburutegian.

Larunbat honetan, kantu-jira

19:00etan abiatuko da kantu-jira, Mikel Laboa plazatik. Afal ordura arte, euskal abes- tiez girotuko digute udalerrri erdigunea. Gogoan izan, Kantu Taldea asteartero biltzen dela Udarregi Ikastolan, 18:30-19:30 artean.

Datozenak

Astlehenean, odol ematea

Usurbilgo Odol Emaleen Elkarteak deituriko hurrengo hitzordua, datorren astlehenean, azaroak 2, 18:00-20:30 artean anbulatorioan.

Maria Tarazona Lorenteren erakusketa Artzabalen

Abenduaren 1era arte ikusgai duzue, bere “Naturaren atalak” erakusketako bilduma. “Zure bizitzako une bakoitzeko detaileak biltzen oinarritzen denean, hauek erretratatzeari zein beharrezkoa den konturatzen zara. Hori dela eta, argazkilaria naiz, sentitzen eta ikusten dudana argazkien bidez erakusteko. Zuhaitz bat besarkatzea, hosto lehorrak zapaltzea, belar bustia ukitzea edo zerumuga begiratzea uskeriak iruditzen arren, momentu preziatuak dira gogoratzeko, ziur asko errepikaezinak; eta hau baino modu hoberik ez dago denboran bidaiatzeko eta bizitakoaren-gatik irribarre egiteko”, dio egileak.

#Kilometroak2015eko eskertza jaialdia

Emaitzak aztertu eta balorazioak egiteko garaia da orain. Baita eskerrak ematekoa ere. Eskertza eguna antolatu du KMK15-ek azaroaren 7rako, larunbata. Zehaztasun gehiago, 7. orrialdean.

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak · beira bikoitza
· segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

ELORZA
OBRAK ETA
ERREFORMAK S.L.

661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Senitarteko ekitaldiak (Ezkontzak, bataioak...)



TALASOTERAPIA ORIOKO AISIAN...

- **Itsas ura modu terapeutikoan erabilia.** Bere ezaugarriak, lokatza, algak eta gatzak diren elementuei batua, gaitz ezberdinak saihesteko balio dute. Abantailak oso handiak dira, analgesiko ondorioa nabarmenduz, min orokorra eta gorputzaren zonalde zehatzetan mina murrizteagatik.
- **Eguneko sarrerak**
- **Hilabeteko bonuak**
- **HOTELAREKIN:** Asteburuko eta gau bateko eskeintzak (gaua, afaria...), talaso +**MARISKADA**+ gaua ...



Hondartza bidea 1, Orío 943 89 44 40 orio@aisiahoteles.com



NOAUA!ren KULTURALDIA 2015

Usurbilen azaroaren 6tik 15era



azaroak 8, IGANDEA

ZINEMA PIKADERO

19:00etan Sutegin



azaroak 6, OSTIRALA

KONTZERTUA

"M. Urdangarin" 20:00etan Sutegin



azaroak 13, OSTIRALA

BERTSO-AFARIA

21:00tan Artzabalen



azaroak 12, OSTEguna

HITZALDIA

"Argiaren alaba" 19:30etan Potxoenean



azaroak 15, IGANDEA

IBILALDIA

10:00tan Arratzainen



azaroak 14, LARUNBATA

ANTZERKIA

"Arrastoak" 20:00etan Sutegin



azaroak 9tik 15era

ERAKUSKETA

"LAUKI" Joseba Larretxe. Liburutegian